## II. ERASKINA

### ANTOÑANAKO HIRIGUNE HISTORIKOAREN EREMU ARKEOLOGIKOAREN DESKRIBAPENA

Antso VI.a Jakituna, Nafarroako Erregeak, sortu zuen herri hau defentsarako helburu garbiekin, haren boterea Nafarroako mugetatik at bere erresumaren mendebaldeko mugetara hedatu nahian.

Hirigunea mendebaldera jaisten den mendi-hegal batean dago kokatua, horregatik, babes nagusiak beheko aldean daude. Herriaren plano arkitektonikoan ifarraldetik hegoaldera doazen bost kale paralelo daude eta horien ardatza Kale Nagusia da. Kale horren bi muturretan dorre gotor zahar bat eta parroki eliza daude.

Harresiaren hasierako funtzioa, babestekoa alegia, aldatu egin da eta etxeak harresiari itsatsi zaizkio haien hormataletan baoak agertzen direlarik. Ekialdean goiko solairuak harresiei itsatsi zaizkie eta behekoetan arkupedun kale bat geratzen da.

Oin berrikoak diren hiru etxe izan ezik, gainerako guztiek egitura zaharra gordetzen dute, eta horietako askok gainera, sabaiko habeak agerian dituzte. Beste etxe batzuk, egitura zaharra gordetzen duten arren, zaharberrituak daude eta ez dituzte sabaiko oholak agerian.

Orubeei dagokionez, bi motatakoak dauzkagu: batetik, 4,5 eta 6 m arteko zabalerako fatxada dutenak eta, bestetik, 8tik 12ra artekoa duen bat. Etxeen altuerak ez dira berdinak, baina bi eta hiru solairutako etxeak nagusitzen dira (% 35a eta % 31a hurrenez hurren dira horrelakoak). Horiez gain badaude solairu bakar batekoak, beheko solairua gehi teilatu azpia daukatenak, (% 19a), eta lau solairutakoak ere (%10a baino ez).

Arkeologiaren aldetik Antoñanan aipatu beharreko elementuak hauexek dira: harresia, bizitoki edo asentamentuaren jatorria den gaztelua, San Vicente Mártir-en eliza, dorre gotorra eta dorretzarra.

## ANEXO II

### DESCRIPCIÓN DE LA ZONA ARQUEOLÓGICA DEL CASCO HISTÓRICO DE ANTOÑANA

Villa fundada en 1182 por el monarca navarro Sancho VI el Sabio, con sentido claramente defensivo, para fortalecer su poder más allá de las fronteras navarras, hacia los límites occidentales de su reino.

El núcleo se emplaza en una ladera con declive hacia el W, colocándose por ello sus principales defensas en la parte baja. Su plano arquitectónico se organiza en cinco calles paralelas, orientadas de N a S. El eje axial es la calle Mayor, en cuyos extremos se sitúan una antigua torre fuerte y la parroquia.

La función defensiva de la muralla ha sido sustituida por una función constructiva ya que las casas se han adosado a ellas apareciendo vanos en sus lienzos. En el costado E se adosan a la muralla las plantas altas, dejándose en la planta baja una calle porticada.

Excepto tres casas que son de nueva planta, el resto de las casas presentan estructura antigua, conservando muchas de ellas la estructura de madera de viguería al descubierto. Otras casas, aunque son de estructura antigua, están reformadas y no dejan las vigas al descubierto.

En cuanto a los solares de ocupación tenemos dos tipos: los de anchura de fachada entre 4,5 y 6 m. y uno de 8 a 12 m. Las alturas de las edificaciones son variables, aunque se da predominio de dos tipos: las casas de dos plantas con el 35% del total y las de tres alturas con el 31% del total. Además existen de una única altura, la planta baja y entrecubierta con huecos a la fachada con un 19% del total y de cuatro plantas que representan únicamente el 10%.

Como elementos destacables arqueológicamente dentro del panorama de la villa de Antoñana, hay que mencionar la Muralla, el Castillo origen del asentamiento, la Iglesia de San Vicente Mártir, la Torre Fuerte y el Torreón.

**1882**

AGINDUA, 1996ko martxoaren 21ekoa, Kultura sailburuarena, Bernedoko Hirigune Historikoaren Esparru Arkeologikoa Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean, Monumentu Multzo izendapenaz Kultura Ondare gisa sartzen duena.

Bernedoko Esparru Arkeologikoaren balio historikoa eta kultura aldetik duen interesa ikusita eta arlo honetan erabilgarri den lege-arautegian ezarritakoa kontutan hartuz, hots, Konstituzioaren 149.1.28. atala, Autonomia Estatutuaren 10.19. atala eta uztailaren 3ko 7/1990 Legea bera aintzat hartuta, ondasun hori Euskal

**1882**

ORDEN de 21 de marzo de 1996, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe la Zona Arqueológica del Casco Histórico de Bernedo, como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

El 24 de noviembre de 1995, el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural de la Zona Arqueológica de Bernedo, fundamentado en su valor histórico y arqueológico, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, los artículos 149.1.28. y 149.3. de la Constitución, el artículo

Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari hasiera ematea erabaki zuen Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak 1995eko azaroaren 24an.

Espediente hori administrazio-bidetik izapidatu ahal izateko, aipatutako 7/1990 Legearen 17 eta 11.3. atalean, eta honekin bat datozen gainerako xedapenetan ezarritakoari jarraituz, jende guztiak espedientearen berri izan zezan, jendaurrean ikusgai jarri zen, eta Arabako Foru Aldundiari eta Bernedogo Udalari entzun zitzaien.

Orain arte adierazitako guztia kontuan hartuta; aipatutako Legearen 17. atalak ezarritakoari jarraituta; Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak proposatuta eta Ondare Etnografiko, Arkeologiko eta Arkitektonikoaren Zerbitzu Teknikoen txostena ikusirik, hau,

ERABAKI DUT:

*Lehenengoa.*– Bernedoko Hirigune Historikoaren Esparru Arkeologikoa Monumentu Multzo izendapenaz Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean, Kultura Ondare gisa sartzea.

*Bigarrena.*– Aipatutako Esparru Arkeologikoa mugatzea I. eraskinean ezarritakoaren arabera eta II.ean agertzen den deskribapenean oinarrituz.

*Hirugarrena.*– Bernedoko Esparru Arkeologikoa Euskal Kultura Ondareari atxikitako Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko eskaria egitea.

*Laugarrena.*– Bernedoko Udalari eta Arabako Foru Aldundiko Kultura Departamentuari zera jakinaraztea: esparru arkeologiko horretan egitekoak diren iharduera eta lan guztietarako, Foru Aldundiaren baimena beharko dela eta baimen hori lortzeko aurretiaz dagokion proiektu arkeologikoa aurkeztu beharko dela.

*Bosgarrena.*– Bernedoko Udalari, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Hirigintza Departamentuei, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari agindu honen berri ematea.

*Seigarrena.*– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Egunkari Ofizialean argitaratzea.

Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko martxoaren 21a.

Kultura sailburua,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

10.19. del Estatuto de Autonomía y la propia Ley 7/1990, de 3 de julio, resolvió incoar el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco, con arreglo a lo que la Ley de Patrimonio Cultural Vasco prescribe.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3. de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública, durante el cual se concedió audiencia a la Diputación Foral de Álava y al Ayuntamiento de Bernedo.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes y visto el informe de los Servicios Técnicos de Patrimonio Etnográfico, Arqueológico y Arquitectónico,

RESUELVO:

*Primero.*– Incluir la Zona Arqueológica del Casco Histórico de Bernedo, como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

*Segundo.*– Delimitar la Zona Arqueológica afectada conforme a lo establecido en el Anexo I y la descripción que figura en el Anexo II.

*Tercero.*– Instar la inscripción de la Zona Arqueológica de Bernedo en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, adscrito al Centro de Patrimonio Cultural Vasco.

*Cuarto.*– Hacer saber al Ayuntamiento de Bernedo, así como al Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Álava, que toda actuación u obra a ejecutar sobre esta Zona Arqueológica deberá contar con autorización de la Diputación Foral, previa presentación del proyecto arqueológico.

*Quinto.*– Notificar la presente Orden al Ayuntamiento de Bernedo y a los Departamentos de Cultura y de Urbanismo de la Diputación Foral de Álava, así como a los Departamentos de Cultura y de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

*Sexto.*– Publicar la Orden de inclusión en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Contra la presente Orden, que pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial correspondiente.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de marzo de 1996.

La Consejera de Cultura,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

# I. ERASKINA / *ANEXO I*




Euskal Kultur Ondarearen Zentrua
Kultura Saila
Eusko Jaurlaritza

Centro de Patrimonio Cultural Vasco
Departamento de cultura
Gobierno Vasco

| | |
|---|---|
| Lurraldea / Territorio: ARABA | Planoa / Plano: BERNEDOKO ARKEOLOGIA GUNEA. Mugapen Planoa. ZONA ARQUEOLOCICA OEL CASCO HISTORICO DE BERNEDO. Plano de Delimitación. |
| Udalerria / Municipio: BERNEDO | |

| Data / Fecha: | Eskala / Escala: | Plano zk / Plano nº: |
|---|---|---|
| 1995/10/18 | 1:1.400 | |

## II. ERASKINA

### BERNEDOKO HIRIGUNE HISTORIKOAREN EREMU ARKEOLOGIKOAREN DESKRIBAPENA

Antso VI.a Jakitunak forua eman zion 1182. urtean eta Nafarroaren menpe egon zen XV. mendea ondo aurreratua zegoen arte. Herri hau sortzeko arrazoien artean aipatu beharrekoak dira, batetik, leku hori komukazio bide zenbaiten elkargunean zegoela eta, bestetik, kokatua dagoen mendixkako gazteluak izaera estrategiko-defensiboa ematen diola.

Erdi Aroko hirugunea harresiek inguratua dago. Bost kale daude bertan: ifarraldetik hegoaldera Beheko kalea, Erdiko kalea, Sarrea kalea eta Kale Nagusia (biek bi aldeetatik sartu-ateratzeko ate bana daukatelarik) eta Gazteluaren kalea. Kale horien trazaketa mendebaldetik ekialderakoa da, Arabako herrietan maiz aurkitzen ez den trazaketa zentzua. Ekialdean beste bi kale daude orientazio hori apurtzen dutenak (ifarraldetik hegoaldera doazenak alegia). Hauexek dira: Herreria kalea eta Suso kalea. Horren hasiera Elizaren portikotik abiatzen da (Plaza Nagusian). Eliza herriaren erdialdean dago.

Erdi Aroko ezaugarri zenbait gordetzen ditu oraindik ere: kaleak oso meharrak dira eta «orube gotikoa» izenekoaren aztarnak gelditzen dira, bereziki Beheko kaleak eta Erdiko kaleak osatzen duten etxadi bikoitzetan ikus daitezkeenak.

Erdi Aroko beste zenbait alderdi interesgarri Elizan eta Gazteluan ikus daitezke. Elizak portada erromanikoa dauka, XIII. mendekoa, eliza eraiki zenekoa. Gaztelua herria sortu aurretik eraikia zegoen iadanik, eta haren zimenduak eta dorreen oinarriak gelditzen dira.

## ANEXO II

### DESCRIPCIÓN DE LA ZONA ARQUEOLÓGICA DEL CASCO HISTÓRICO DE BERNEDO

Concedido el Fuero por Sancho VI el Sabio en 1182, permanecerá bajo órbita navarra hasta bien entrado el s. XV. Destacan entre los motivos de su fundación, su emplazamiento en la confluencia de varias rutas de comunicación y su carácter estratégico-defensivo, potenciado por la presencia en la colina donde se ubica de un Castillo.

El núcleo medieval se rodea de una muralla, y se dispone en torno a cinco calles, de N a S la calle de Abajo, del Medio, Sarrea y Mayor (ambas con portal de salida en cada extremo) y la calle del Castillo. El trazado de estas calles es E-W, poco frecuente entre las villas alavesas. En la zona E hay dos calles más que rompen esta orientación (de N a S): Son las calles de la Herrería y de Suso, cuyo inicio parte del pórtico de la Iglesia (Plaza Mayor). La Iglesia de la Villa se emplaza en un lugar central.

Como importante pervivencia de su pasado medieval conserva la estrechez y disposición de las calles y restos del «solar gótico», visible especialmente en las dobles manzanas entre la calle de Abajo y del Medio.

Otros puntos medievales de interés vienen representados por su Parroquía, que conserva una portada románica (s. XIII) de su primitiva fábrica, y el Castillo, anterior a la propia fundación de la villa y del que aún se mantiene su cimentación y los arranques de algunas de sus torres.

**1883**

AGINDUA, 1996ko martxoaren 21ekoa, Kultura sailburuarena, Kontrastako (Harana) Hirigune Historikoaren Esparru Arkeologikoa Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean, Monumentu Multzo izendapenaz Kultura Ondare gisa sartzen duena.

Kontrastako Esparru Arkeologikoaren balio historikoa eta kultura aldetik duen interesa ikusita eta arlo honetan erabilgarri den lege-arautegian ezarritakoa kontutan hartuz, hots, Konstituzioaren 149.1.28. atala, Autonomia Estatutuaren 10.19. atala eta uztailaren 3ko 7/1990 Legea bera aintzat hartuta, ondasun hori Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari hasiera ematea erabaki zuen Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak 1995ko azaroaren 24an.

**1883**

ORDEN de 21 de marzo de 1996, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe la Zona Arqueológica del Casco Histórico de Contrasta (Valle de Arana), como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

El 24 de noviembre de 1995, el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural de la Zona Arqueológica de Contrasta, fundamentado en su valor histórico y arqueológico, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, los artículos 149.1.28. y 149.3. de la Constitución, el artículo 10.19. del Estatuto de Autonomía y la propia Ley 7/1990, de 3 de julio, resolvió incoar el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco, con arreglo a lo que la Ley de Patrimonio Cultural Vasco prescribe.